

Prentsa Oharra **Nota de Prensa**

Foru aldundiak Izkiko eta Azkorri Aratzeko parke naturaletako aparkalekuak handitu ditu, sarbideak hobetzeko eta antolatzeko

Jarduketa foru estrategiaren baitan kokatzen da, naturaguneez eta haien ondareaz gozatzea eta ingurumen balioen kontserbazioa bateragarri egiteko

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 25a. Arabako Foru Aldundiak 140 aparkaleku plaza berri gaitu ditu turismoentzat Izkiko eta Azkorri-Aratzeko parke naturaletan. Zehazki, Korresen eta Lezen daude kokatuta, eta helburua da “*bisitarien harrera hobetzea, segurtasuna indartzea eta ingurumen balio handiko gune horien erabilera antolatuagoa sustatzea*”, hala nabarmendu du Saray Zárte Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren foru diputatuak gaur goizean gune horietara Clara Navas Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Ostalaritzako zuzendariarekin eta Korresko Administrazio Batzarreko lehendakariarekin batera egindako bisitan.

Aparkaleku berri horiek egitearen helburua da naturaguneeen erabilera publikoa eta natura ondarearen gozamina ingurumen balioen kontserbazioarekin bateragarri egitea, foru strategiaren ildotik. Arabako parke naturalek gero eta bisitari gehiago hartzen dituzte, eta iaz, esaterako, 409.000 bisitari baino gehiago izan ziren. Horren aurrean, *beharrezkoa da mugikortasun jasangarriagoa sustatuko duten neurriak hartzea, ekosistemetan sortzen den eragina murriztea eta aisialdiko jardueren, landa inguruneke ohiko erabileren eta espazio horien berezko ingurumen balioen babesaren arteko oreka hobetzea*, nabarmendu du foru arduradunak

Korresko aparkalekuak 62 leku ditu turismoentzat, haietatik bi mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta, eta baita autobusentzako 3 leku ere. Herrigunetik kanpo dagoenez, ibilgailuak modu ordenatuan aparkatzea errazten da, eta udalerrian barrena ibilgailuen joan-etorria arindu. Aparkalekuaren kokapena dela-eta, bisitariak 200 metro inguruko ibilbidea oinez egin beharko dute Korresera heltzeko. Pista hori ere egokitzen ari dira, errazago ibiltzeko.

Lezeko aparkalekuak 78 leku eskaintzen ditu turismoentzat, haietatik hiru mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatuta, eta bost autokarabanarentzako tokia ere badu. Gainera, bizikletetarako atsedengune eta transferentzia gune bat egingo da, honako ibilbide estrategiko hauei zerbitzua emango diena: Arabako Lautadako ibilbide zikloturista handia, Eurovelo ekimena, Donejakue Bidea, GR-25,

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Agurain eta Irurtzun arteko etorkizuneko bide berdea eta Aizkorri-Aratz parke naturaleko bidezidorren sarea. Lurraldeko mugikortasun jasangarrirako funtsezko kokagunea da; izan ere, tokiko nahiz nazioarteko bizikleta ibilbide ugari elkartzen dira bertan.

Atsedengune berriak honako hauek ditu: bizikleta elektrikoentzako karga estazio bat, bizikleta aparkalekuak, interpretazio panelak eta bizikleten mantentze lanak egiteko zutabe bat.

Saray Zárate diputatuaren hitzetan, *"jarduketa hauekin foru aldunditik sendotu egiten dugu plangintza, segurtasuna eta ingurumenaren zaintza oinarri hartuta naturaguneak modu orekatuan kudeatzeko gure konpromisoa"*. Aparkaleku berriei esker, parkeetarako sarbidea hobeto antolatu ahal izango da, kontrolik gabeko aparkatzeak eragiten dituen kalteak murriztuko dira eta ikuspegi ekologikotik sentikorrenak diren eremuak babestuko dira.

Bestalde, Clara Navas Turismo eta Ostalaritza zuzendariak nabarmendu duenez, *jarduketa hauek helburu argi bati erantzuten diote: turismo jasangarriagoa, antolatuagoa eta gure natura ondarearekiko errespetuzkoagoa den eredu baterantz aurrera egitea. Sarbideak hobetu eta antolatuta, era berean, bisitariei harrera egokiagoa eskaintzen zaie, mugikortasun jasangarria bultzatzen da eta eremu sentikorrenen gaineko presioa murrizten da; hala, gure parke naturalez eta ingurumen eta paisaia balioez gozatzen jarraitzea bermatzen da.*

Jarduera horiek 898.679,04 euroko inbertsioa dute, eta Parke Naturalen Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren barruan daude, Europar Batasunak NextGenerationEU funtsen bidez finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.